

**2018ko OTSAILAREN 22an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **2 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2018ko otsailaren 22an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Naiara Carvajal Larrañaga andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERREDA

1.- 2018ko URTARRILAREN 25eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 16ra.

Segidan, Alkatetzak 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 16ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 12ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 12ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

2018I3990015 espedientea

Udalbatzarrak, 2009ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, onartu egin zuen Zarauzko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena – UDALHITZ 2008-2010 –. Gaur egun aplikatzen jarraitzen da.

Aipatutako akordio horretan, alde zuzenetik Udalbatzarrak lan-baldintzetan eta ordainsari-baldintzetan aitortuak zituen hobekuntzak jaso behar ziren, eta egia bada ere horietako batzuk jaso zirela, praktiketako funtzionarioen ordainsariei buruzko aipamenik berriaz jaso gabe geratu zen.

Gainera, 8. artikuluan bertan honakoa jasotzen da:

8. artikulua.- Baldintza onuragarrienak eta lansari bermea.

Erakunde edo pertsonen dagokienez, Hitzarmena gainditzen duten eta alde zuzenetik onartutako baldintzak ezarri ahal izango dira; (...)

Dena dela, karrerako funtzionario sartu berriek –aldez aurretik prestakuntza eta praktikaldia gainditu behar izan zutenek– beren lanpostuek aurreikusita zituzten ordainsari berberak egon ziren kobratzen aipatutako epealdi horretan; Udaltzaingoko Departamentuko langileek, bestalde, izan zuten berezitasunik. Izan ere, aurreko Enplegu Publikoko Eskaintza batzuetatik zetozen praktiketako udaltzainek, oinarrizko ordainsariez gain, ordainsari osagarriak ere jaso zituzten, ez, ordea, udaltzaingoko hainbat txanda eta lanaldirengatik garai hartan ordaintzen ziren plusak. Beraz, azken kasu horretan frogatuta geratzen da, batetik, hobetu egiten zela Euskal Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan jasotako legezko gutxieneko ordainsaria eta, bestetik, Zarauzko Udalak, oro har, inoiz ez duela ordainsarrietan diferentziarik egin nahi izan praktiketako eta karrerako langileen artean.

Era berean, Udalbatzarrak, 2015eko abenduaren 30ean egindako bilkuran, hasierako onespina eman zion ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIARI, eta kasu horretan ere, berariaz aipatu gabe geratu zen ordainsari-hobekuntza hura. Aipatutako araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2016ko martxoaren 8an.

Gaur egun, eta egoera horren aurrean, lanpostuen balorazioko batzorde teknikoak, araudi horren 5. artikuluari jarraituz, proposamen bat egin du araudi horren 14. artikuluan parrafo berri bat sartzeko. Honela dio parrafo horrek:

“Bigarren kapitulua. Ordainsarien erregimena.

14. artikulua. Ordainsarien kontzeptuak.

(.../...)

Orokorrean, praktiketako funtzionario sartu berriek betetzen ari diren lanpostuari dagozkien ordainsariak jasoko dituzte. Era berean, udaltzain lanpostuak bete behar dituzten praktiketako funtzionarioen kasuan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestatzen ari diren bitartean, udaltzain lanpostuaren berezko ordainsari osagarriak jasoko dituzte, “ordu nekagarritasuna” faktoreari dagozkionak izan ezik. Gainerako kasuetan, (adb. barne promozioa) eta prestakuntza-aldietan, praktiketako funtzionarioek jatorrizko lanpostuaren berezko ordainsariak mantenduko dituzte”.

Ikusita Giza Baliabideetako Departamentuaren proposamena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespina ematea ZARAUZKO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIEN ARAUDIAREN 14 artikulua aldaketari, adierazitako moduan.

Bigarrena.- Aldaketa horrek ordainsarrietan dakartzan ondorioak aplikatzea 2018ko urtarrilaren 2an izendatutako praktiketako udaltzainei, noiztik eta, aldaketak

lehenengo onespena jasotzen duen momentutik aurrera; momentu honetan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestakuntza jasotzen ari dira.

Hirugarrena.- Araudiaren aldaketa jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek euren erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea iragarki-taulan, Udalaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da ezagutzera.

Laugarrena.- Erreklamaziorik aurkeztu ezean, araudia behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

5.- GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK. HASIERAKO ONESPENA.

2018GGGG0003 espedientea

2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean, Gizarte Zerbitzuen Departamentuari zegozkionak. Oinarrien testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Gerora, Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa batzuk onartu zituen.

Orain, Gizarte Zerbitzuen Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2018ko otsailaren 8an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOEL, erantsitako testuaren arabera

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarrien testu osoa argitaratu beharko da.

Laugarrena.- Berariaz indargabetzea GIZARTE-ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO orain arte indarrean zeuden OINARRI BEREZIAK.

GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.- Helburua

Oinarri hauen helburua da gizarte ekintzaren esparruan jarduerak, proiektuak edo programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona edo erakundeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzea. Beraz, artikuluko hauen bidez, orokorrean Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak emango dituen diru-laguntzak arautuko dira; eta eranskinen bidez, berriz, jarduera-lerro bakoitzaren alderdi bereziak. Diru-laguntza lerro hauek arautzen dira oinarri hauetan:

1. Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak egiteko diru-laguntzak.
2. Zarauzko udalerrian bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio proiektuak egiteko diru-laguntzak.
3. Ekintza humanitario eta puntaletarako proiektuak egiteko diru-laguntzak.
4. Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten elkarteentzako diru-laguntzak.
5. Gazte kooperanteentzako diru-laguntzak.

2. - Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak

Onorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauetan araututako diru-laguntzak:

Diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoa edo juridikoa edo diru-laguntza jasotzeko egoera legitimoan dagoena izango da diru-laguntza hauen onuraduna. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinen jasotzen diren baldintza espezifikoak bete beharko ditu.

Ezingo dute oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun izan, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

Pertsonak edo erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. Eta agiriok eskuratu ezin direnean, horien orde, aitorpenarenak aurkez daitezke.

Diru-laguntzen eskaerekin batera ekarri beharreko zerga-ziurtagiriak edo Gizarte Segurantzakoak ez dira aurkeztu beharko, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badio ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak diru-laguntzen organo kudeatzaileari emateko.

3.- Eskaerak

1. Zarauzko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira eskaerak (Kale Nagusia 29), diru-laguntza hauen urteko deialdian jartzen duen epean, diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinen adierazten den dokumentazioarekin batera.

2. Eskatzen den agiriari bat dagoeneko Zarauzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatzen duena, baldin eta agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazten badu eta dokumentu horien jatorrizko prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

3. Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

4. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsok zuzentzeko; epe horretan zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela pentsatuko da, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

4.- Diru-laguntzak emateko prozedura

Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera emango dira diru-laguntzak.

5.- Diruz lagundutako jardueren finantziazioa

1. Oinarri hauen eranskinetan dauden diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarriek ekarpen propio bat eska dezakete diruz lagundutako jarduera finantzatzeko. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako fondoek ekarpen propioa egiaztatu egin

beharko da, jardueran izandako gainerako gastuen modura.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatutakoari utzi gabe.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoak ez du gaudituko diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik ez beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekurso batzuekin batera.

6.- Tramitazioa

Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako jarritako irizpideen arabera tramitatuko da diru-laguntza.

7.- Ebazpena

Oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera egingo da diru-laguntza emateko ebazpena.

8.- Zuzkidura eta aurrekontu-partida

Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdietan jarriko dira zeintzuk diren diru-laguntzen zuzkidurak eta aurrekontu-partidak.

Baldin eta aurrekontu-kontsignazio erabilgarriarekin ez bada iristen eskatutako zenbateko osoa estaltzeko, oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera banatuko da emandako zenbatekoa.

Hala ere, diru-laguntza lerro bakoitzerako jarritako zenbatekoa handitu daiteke, UDAL AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUetan jasotakoarekin bat etorritik, baldin eta deialdi bakoitzean hala zehazten bada.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu edo txikitu daiteke, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik; aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena daukan organoak egingo du hori, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

9.- Erakunde edo pertsona onuradunen betebeharrak

Hauek dira pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain:

- Diru-laguntzaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera bereganatuko du.
- Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatuko du betebeharrak eta baldintzak bete dituela, jarduera egin duela eta bete dituela diru-laguntza emateko edo gozatzeko bete beharreko helburuak.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortuko ditu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartu eta haiek egiten lagunduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera; era berean, kontrol-organoek egindako egiaztapen eta kontrol finantzieroko beste edozein jarduera ere onartu eta egiten lagunduko du; eta aurreko jarduerak egiteko eskatzen zaion informazio guztia emango du.
- Emakidaren ebazpen-proposamena egin aurretik, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela egiaztatuko du.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak 3.000 euroko kopurua gaintzen ez duenean deialdian.
- Zarauzko Udaleko organo eskudunak hala erabakitzen duenean, diru-laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa dela-eta behar bezala justifikatutako kasuetan.
- Administrazio publikoei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru-laguntzak direnean, baldin eta diru-laguntzaren oinarri espezifikoetan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko ematen zaizkien diru-laguntzetan.

Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimen bat sartu ahal izango du, organo emaileak ziurtagiri telematikoen bidez lor ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapenak; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, tokiko erakundeak berak ziurtagiri bat egingo du, Zarauzko Udaleko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko; ziurtagiri hori espedienteari erantsiko zaio.

– Lau urteko epean gordeko ditu jasotako fondoaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak (dokumentu elektronikoak barne), egiaztapen- eta kontrol-jardueren aztergai izan daitezkeelako.

– Organo emaileari jakinaraziko dio nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu baditu, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko.

– Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraziko du.

– Jasotako fondoak itzuliko ditu, ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan.

– Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, Zarauzko Udalaren diru-laguntza jaso duela adieraziko du.

– Jarduera egitean, pertsonen oinarriko eskubideak eta indarrean dauden legeak errespetatuko ditu.

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO UDAL ARAUDIaren arabera, ondorengo irizpideak jartzen dira:

- Aurkeztutako proiektua edo jarduera euskaraz edo elebitan gauzatuko da arlo guztietan (hedapenean eta jarduera bera gauzatzeko ere bai). Elebitan egiten denean, euskara lehenetsiko da beti. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira, jatorriz, euskaldun ez diren hizlari, mahaikide eta antzerakoak, beren solasgaiak edo jatorriak hala eskatuko balu.
- 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardueretan euskararen erabilera bereziki zainduko da.

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO UDAL ARAUDIaren arabera ondorengo irizpidea jartzen da:

Komunikazio ez-sexista erabiliko da dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan; ez da erabiliko emakumeak diskriminatzen dituen irudi edo estereotipo sexistarik; eta berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna, genero-rol eta identitate ugaritasuna helarazten duen irudia bultzatuko da.

10.- Diru-laguntzen ordainketa

Oinarri hauen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunei erreparatuta, zenbatekoaren % 70 diru-laguntza ebazten denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Dena den, ordainketak aurreratu ahal izango dira (diru-laguntza emateko ebazpenean zehaztutako moduan), baldin eta aurretik justifikatzen bada finantzazio hori beharrezkoa dela diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko.

11.- Diru-laguntzaren xedea justifikatzea

Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean jarritakoaren arabera justifikatuko da diru-laguntzaren erabilera, eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdian jarritako epean aurkeztu beharko da.

Udaleko Ordenantza Orokorraren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko diru-laguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion guztiak (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den diru-laguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako diru-laguntza.

Banakako edo baterako modalitate hauen bidez justifikatu ahal izango du onuradunak, jarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- 1) Justifikazio-kontua, Erregelamenduan aurreikusitako moduetako batean.

2) Modulu bidez egiaztatzea.

60.000 eurotik beherako diru-laguntza bat eman bada, Justifikazio Kontu Sinplifikatua erabili ahaliko da, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:

- Diru-laguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan.
- Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren aitorten arduratsua, honakoak adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Diru-laguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen aitorten arduratsua, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen eta horietatik sortutako interesen itzuleraren ordainketa-gutuna.

“Moneta-unitateak” izeneko lagin-teknikaren bidez egiaztatutako dira gastuaren frogagiriak, diru-laguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkatuko trafiko juridikoan, erregelamendu bidez jarritakoaren arabera. Hegoaldeko herrialde pobretuetan egiteko proiektuen justifikazioetan ere onartuko dira gastuen justifikanteen fotokopiak, baldin benetakotasun ziurtagiri batekin badatoz eta proiektuarekiko zuzeneko lotura adierazten bada kontzeptuan.

Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe.

12.- Publizitatea

Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko da emandako diru-laguntzen zerrenda.

Bestalde, diruz lagundutako edonolako programa, jarduera, inbertsio edo ekimenaren izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du diru-laguntzaren onuradunak (euskaraz), eranskin bakoitzean zehazten den moduan.

13.- Diru-laguntzak itzultzea

Oinarri hauetan edo diru-laguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak ez bada, berriz aztertuko da diru-laguntza, eta, horren arabera, emandako diru-laguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. eta 52. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutze-interesak ere ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta, bereziki, hurrengo kasu hauetan:

- Diru-laguntza eskuratzeko jarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatu lortu bada diru-laguntza.
- Diru-laguntzaren emakidaren oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- Jasotako diru-laguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo justifikazioa behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala balegokio, diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoaren arabera.
- Diru-laguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- Indarrean diren legeetan aurreikusitako egiaztatze eta kontrol finantzieroko jarduerari aurre egitea, aitzakiak edo eragozpenak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioko betebeharrak ez betetzea, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularrak diren ikustea, edo xede berarekin estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko beste administrazio publiko edota erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.

- Administrazioak onuradunei jarritako betebeharrak ez betetzea; edota onuradunek ez betetzea diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua egiteko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak –berak bakarrik edo nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuk emandakoekin batera– gainditu egiten badu onuradunak aurrera eraman behar duen jardueraren kostua, emakida aldatu egingo da, eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina.

Bi administrazio publikoren edo gehiagoren diru-laguntzak emanak direnean, eta atal honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

14.- Dirua itzultzeko betebeharra

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru-kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutze-interesak. Betebehar horrek ez du zerikusirik izango, hartara iritsiz gero, ezartzen diren zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administratzaileek edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenek, baldin eta a) urratutako obligazioak betetzeko bere ardurako egitekoak egin ez badituzte, b) beraiek hartutako erabakiekin arau-haustea gerta badaitezke edo c) beren mendekoek hartutako erabakiak onartu badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legezko ordezkariak dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legezko edo estatutuetao xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

15.- Araudi osagarria

Oinarri espezifiko hauetan aurreikusi ez den orotan beste arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko EAO); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailearen 25eko EAO); eta ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.

16.- Errekurtsoak

Oinarri hauen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, onartu dituen organo eskudunaren aurrean, edo, zuzenean, aurka egin ahal izango da bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.

1 ERANSKINA

HEGOALDEKO HERRIALDE POBRETUETAN GARAPEN PROIEKTUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

1.- Helburua

Eranskin honen helburua da hegoaldeko herrialde pobretuetan bazterkeria kausen aurka borrokatzeko eta giza garapen iraunkorra eta bidezkoa sustatzeko kooperazio-proiektuak egiteko norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren diru-laguntzak arautzea.

Hegoaldeko herri pobretuetako leku behartsuenen garapen politiko, sozial eta ekonomikoa bultzatuko duten prozesuak eta proiektuak lagunduko dira. OCDEren GARAPENERAKO LAGUNTZAKO BATZORDEAREN LAGUNTZA HARTZAILEEN ZERRENDAn sartuta dauden herrialdeak dira.

2.- Eskatzaileak

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernu kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian izango dute

egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari (egoitza soziala Eusko Jaurlaritzaren ELKARTEEN ERROLDA NAGUSIAN inskribatuta).

Salbuespen gisa, udalerrarentzat interesgarriak diren kooperazio proiektuek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari ofizialik ez izan. Kasu horietan, alde aurretik oniritzia eman beharko du informazio-batzordeak.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan agertzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte erakunde horiek:

- Euren helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako egitura eta gaitasun eraginkorra izatea, eta proiektuan hori behar bezala ziurtatzea.
- Tokiko bazkide bat izatea.
- Elkartearen erregistroan inskribatuta egotea.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan eskatutako dokumentazioaz gain, beste hau erantsiko zaio eskaerari:

- Elkartearen erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen estatutuak, aurrez Udalari entregatu ez bazaizkio, betiere data eta zein organo edo ordezkari ziren jasota, eta dagokien prozeduraren amaieratik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

3.- Proiektuen betebeharrak

Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hegoaldeko herrialde pobretuetako tokiko bazkide baten bidez egitea. Tokiko bazkide hori nortasun juridikoa duen erakundea izango da, irabazi asmorik gabekoa, formalki eraturakoa eta dagokion erregistroan inskribatuta egongo da.
- b) % 20an gutxienez beste diru-iturri batzuekin finantziatzea (erakunde eskatzailearen edo tokiko bazkideen ekarpenak edo beste finantziario-iturri publiko edo pribatu batzuk). Tokiko bazkideen edo tokiko erakundeen eta beste onuradun batzuen ekarpen balioztatuak onartuko dira, frogagiriaren bidez ondo justifikatzen badira.
- c) Proiektua ekonomikoki bideragarria izan dadila, eta koherentzia egon dadila proposatutako gastuen eta egin beharreko jardueren artean.
- d) Proiektuaren aurrekontu zehaztua eta egin beharreko gastuen programazioa sartzea.
- e) Aurreikusitako emaitzak lortzeko behar diren baliabideak ondo aurreikustea.
- f) GIZA GARAPEN IRAUNKOR ETA ENDOGENOaren paradigmaren sartuta egotea.
- g) Genero ikuspegia edukiko dute.
- h) Xede biztanleria ez hartzea onuradun bezala, baizik eta eskubideen titular bezala.
- i) Ez izatea noizbehinkako ekintza isolatuak, gizartea eraldatzeko estrategia zabalago batean sartuta egotea, eta etorkizuneko iraunkortasun ekologikoa eta soziala zehaztuta edukitzea.
- j) Garapen komunitarioko programen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea, eta tokiko eta eskualdeko erakundearen garapena bultzatzea.
- k) Kultura ez inposatzea eta komunitate hartzailearen idiosinkrasia eta ingurumena errespetatzea.

4.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Kostu zuzenak izango dira diruz lagun daitezkeenak, baldintza hauekin:

- a) Lurzoruak edo eraikinak erostea. Gauza berezi modura egindako erosketak izango dira, eta, nolatan ere, frogatu beharko da instantzia publiko edo komunitario batentzat erosiko direla.
- b) Eraikinak eta azpiegiturak egin edo birgaitzea.
- c) Ekipoak eta materialak erosi eta garraiatzea.

- d) Tokiko langileen kostuak.
- e) Hara joandako langileen kostuak; Kooperantearen Estatutuak xedatutakoaren arabera, ez du gaindituko eskatutako diru-laguntzaren % 10eko muga.
- f) Tokiko giza baliabideak gaitzeko eta trebatzeko kostuak.
- g) Proiektuak funtzionatzeko kostuak, alegia, proiektua garatzeko behar diren material suntsigarriak eta beste hornidura batzuk erosteko kostuak, eskatutako diru-laguntzaren % 15eko mugarekin.
- h) Errotazio fondoa, hau da, pertsona onuradunei maileguak emateko erabiltzen den zenbatekoa. Kasu honetan, aurreikusitako itzulketen zenbatekoa eta xedea adierazi behar dira.

Baldin diruz lagun daitekeen gastu baten zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada, obrako gauzatze-kostuen kasuan, edo 18.000 eurotik gorakoa bada, ekipamendu-ondasunen horniduren edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan, erakunde onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua egiteko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen; ez du halakorik egingo, ordea, diruz lagun daitekeen gastuaren eta/edo herrialdearen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago erakunde nahikorik horiek baldintza eskotetan hornitzeko edo egiteko.

Eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera egingo da aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa. Memorian espresuki justifikatuko da aukeraketa hori, baldin ez bada eskaintza ekonomiko onena aukeratu. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan sartu beharko dira.

Diruz laguntzekoak izango dira, baita, zeharkako kostuak; proiektuarekin lotutako zuzeneko administrazio eta kudeaketa gastuak izango dira, alegia, proiektua identifikatu, formulatu, segimendua egin eta ebaluatzeko direnak. Eskatutako laguntzaren % 10ekoa izango da gehienez zeharkako kostuen portzentajea.

5.- Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

Norgehiagoka prozedura bidez ematen diren diru-laguntzetan, lehenik, aurkeztutako eskaerak konparatzen dira; ondoren, lehentasun-ordena jartzen da, hurrengo puntuan jasotako balorazio-irizpideen arabera; eta, azkenik, irizpideak aplikatuta balorazio handiena lortu dutenei diru-laguntza esleitzen zaie, kreditu eskuragarriaren barruan eta deialdian jarritako mugarekin. Beraz, jarduerak puntuazio-hurrenkeraren arabera jasoko dute diru-laguntza, aurrekontuaren mugak eta baliabideak kontuan hartuta.

6.- Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Inplikaturako aldean gaitasunari buruzkoak (gehienez 21 puntu)

- Erakunde eskatzaileak garapeneko lankidetzan proiektuetan duen esperientzia (gehienez 7 puntu).
- Tokiko bazkidearen esperientzia eta gaitasuna (gehienez 7 puntu).
- Elkartearen parte-hartzea Zarauzko sentsibilizazio jardueretan eta elkartasun-sarean (gehienez 7 puntu).

Proiektuaren kalitate teknikoari eta inpaktuari buruzkoak (gehienez 67 puntu)

- Proiektuari buruzko informazioa: Proiektuak nola eta zein neurritan laguntzen duen lurraldearen eraldaketa sozialean eta xede biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzen.
 - Proiektuaren aurrekariaren, testuinguruaren eta justifikazioaren informazio argi eta zehatza (gehienez 4 puntu).
 - Xede biztanleriaren deskribapena: baldintza sozioekonomikoak, eta sexu eta adinaren arabera bereizitako datuak (4 puntu).
- Zehaztasun osoz definitzen dira proiektuaren helburuak, adierazleak eta espero diren emaitzak, bai eta egiaztapen-iturriak ere (gehienez 5 puntu).
- Koherentzia dago ekintzaren justifikazioaren, planteatutako helburuen, proposatutako jardueren eta espero diren emaitzen artean (gehienez 6 puntu).
- Entitate eskatzaileak eta tokiko bazkideak eraldaketa sozialerako daukaten estrategia zabalago batean sartuta dago proiektua; estrategia hori proiektuaren gauzatze hutsaren gainetik dago (gehienez 6 puntu).
- Xede biztanleriaren parte-hartzea proiektua identifikatzen, egiten eta kudeatzen (gehienez 6 puntu).

- Genero ikuspegia kontuan hartzea (gehienez 11 puntu).
- Diruz lagundutako ekintza egin ondoren, proiektua etorkizunean iraunkorra izatea (gehienez 6 puntu).
- Zarauzko Udalarentzat lehentasunezko interesa duen leku batean garatzea proiektua: Sahara edo kanpotik immigratuta Zarautzen bizi diren pertsona gehienek jatorrizko inguruak edo eskualdeak (gehienez 5 puntu).
- Xede biztanleriaren balio kulturalak errespetatzea eta bultzatzea (gehienez 4 puntu).
- Jarduera-eremuko natur aberastasuna eta balio ekologikoak errespetatzea eta babestea, kalte ekologikorik sortu gabe (gehienez 4 puntu).
- Proiektua garatuko den eremu geografikoko Giza Garapenaren Indizea (gehienez 6 puntu).

Bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 12 puntu)

- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gastuen aurrekontu xehatua); jardueren, baliabideen eta kostuen arteko erlazioa (gehienez 12 puntu)

7.- Instrukzioa

1. Hauek dira diru-laguntzaren emakida-prozedura tramitzeko eskumena duten organoak:

- a) Instrukzioa (instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako teknikaria.
- b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatze beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera instrukzio faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela diru-laguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean jarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoituta behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

8.- Ebazpena

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatetzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, diru-laguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: diru-laguntzaren xedea, diru-laguntza eskuratzeko duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurtso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

4. Gehienez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen epe hori.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziozko egintzak ezeztatzaileak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenekin bat etorrita egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako diru-laguntzak.

9.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Dagokion deialdian finkatuko da proiektu bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion; dena den, zenbatekoak ezingo du gainditu aurrekontu osoaren % 80.

Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren % 100ekoa izango da. Kasu berezietan, eskatutakoa baino kopuru txikiagoa ere eman dezake Udalak, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta justifikatutako arrazoiengatik, baldin eta horrek jardueraren bideragarritasuna kolokan jartzen ez badu.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehentasun-ordena jartzea.

Baldin behin-behineko ebazpen-proposameneko diru-laguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako eskaeran dagoena baino, Zarauzko Udalak eskatu ahaliko dio onuradunari bere eskaera berriz egin dezala, konpromisoak eta baldintzak bat etor daitezkeen eman daitekeen diru-laguntzarekin. Dena den, eskaera berri horrek ere errespetatu egin beharko ditu diru-laguntzaren helburua, baldintzak, xedeak eta eskaerei jarritako balorazio-irizpideak.

10.- Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea

Diru-laguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta gehienez 15 hilabeteko iraupena izango du, diru-laguntza hartzen denetik kontatzen hasita. Dena den, Zarauzko Udalarari jakinarazi beharko zaio zein egunetan hasi den esku-hartzea.

- Programa garatzeko arduradun bezala adierazitako taldeari edo erakundeari egindako diru-transferentziaren justifikantea aurkeztu beharko da.
Diru-transferentziaren justifikazioa 2 hilabeteko epean egin beharko da, diru-laguntza jaso zenetik kontatzen hasita.
- Dagokion deialdian jarriko da gainerako justifikazioak aurkezteko epea.

11.- Aldaketak

Ekintza egitean aldaketa esanguratsuak aurrera eraman ahal izateko, Zarauzko Udalaren berariazko baimena lortu beharko du diruz lagundutako entitateak. Hauek dira aldaketa esanguratsuak: helburuak edo xede biztanleria aldatzea, edo onartutako aurrekontua % 10etik gora aldatzea.

12.- Segimendua

Udalak entitateei dei egingo die, kooperazioko proiektuen segimenduko eta ebaluazioko bilerak egiteko.

2 ERANSKINA

ZARAUZKO UDALERRIAN BERTAN ERALDAKETA SOZIALERAKO HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

1.- Helburua

Eranskin honen helburua da eraldaketa sozialerako heziketa proiektuak egiteko norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren diru-laguntzak arautzea. Proiektu horiek tresna egokiak izango dira gizartearen baitan kontzientzia kritikoa sortzeko, eratzunkidetasun eta hiritartasun unibertsalaren ideiatik abiatuta; eta herritarrak mobilizatzea eta herrien nahiz pertsonen emantzipaziorako ekimen eta esperientzia eraldatzaileak martxan jartzea sustatuko dute.

Sentsibilizazioa indartuko duten ekintzak lagunduko dira. Hor sartzen dira kontzientzia kritikoa sortzeko Zarauzko gizarte osoari zuzendutako ekintzak. Desberdintasun ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta generokoaren egiturazko

arrazoiak agerian utziko dira, tokikoaren eta orokorraren arteko loturatik abiatuta. Eta, aldi berean, tolerantziaren eta elkartasunaren balioak sustatuko dira, sorleku eta jatorri geografiko desberdineko pertsonen eta kulturen artean.

2.- Eskaerak

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari (egoitza soziala Eusko Jaurlaritzaren ELKARTEEN ERROLDA NAGUSIAN inskribatuta).

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari ofizialik ez izan. Kasu horietan, aldez aurretik oniritzia eman beharko du informazio-batzordeak.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan agertzen diren baldintzez gain, beste hau ere bete beharko dute erakunde horiek: euren helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako egitura eta gaitasun eraginkorra izatea, eta proiektuan hori behar bezala ziurtatzea.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan eskatutako dokumentazioaz gain, beste hau erantsiko zaio eskaerari:

- Elkartearen erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen estatutuak, aurrez Udalarari entregatu ez bazaizkio, betiere data eta zein organo edo ordezkari ziren jasota, eta dagokien prozeduraren amaieratik bost urte baino gehiago igaro ez badira.
- Ikastetxeen bermea, hezkuntza sistemari zuzendutako proiektuen kasuan.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

3.- Proiektuen betebeharrak

Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Nahikoa informazio eduki behar dute, helburu, emaitza, adierazle eta abarri buruz (eskaintzen den formularioaren arabera).
- Bideragarri eta koherente izan behar dute, identifikaziotik ebaluazioko irizpideetara.
- Proiektuaren aurrekontu zehaztua eta egin beharreko gastuen programazioa sartu beharko da.
- Ikastetxeen bermea, hezkuntza sistemari zuzendutako proiektuen kasuan.

4.- Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizios hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

Norgehiagoka prozedura bidez ematen diren diru-laguntzetan, lehenik, aurkeztutako eskaerak konparatzen dira; ondoren, lehentasun-ordena jartzen da, hurrengo puntuan jasotako balorazio-irizpideen arabera; eta, azkenik, irizpideak aplikatuta balorazio handiena lortu dutenei diru-laguntza esleitzen zaie, kreditu eskuragarriaren barruan eta deialdian jarritako mugarekin. Beraz, jarduerak puntuazio-hurrenkeraren arabera jasoko dute diru-laguntza, aurrekontuaren mugak eta balibideak kontuan hartuta.

5.- Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutzinez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Erakunde eskatzaileari buruzkoak (gehienez 20 puntu)

- Erakunde eskatzaileak eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio ekintzetan duen esperientzia (gehienez 10 puntu).
- Beste erakunde batzuekin batera eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio ekintzak egitea, eta helburu berarekin (gehienez 10 puntu).
- Erakunde eskatzaileak bere egoitza soziala Zarautzen izatea (gehienez 10 puntu).

Mezuaren edukari buruzkoak (gehienez 35 puntu)

- Proiektuaren azalpena eta koherentzia orokorra (gehienez 15 puntu).

- Errefuxiatuen problematikari heltzen diona (gehienez 10 puntu).
- Proiektuak lagun dezala xede biztanleriaren ohituretan aldaketak bultzatzen (gehienez 5 puntu).
- Proiektuak indartu dezala giza eskubideen defentsa (gehienez 5 puntu).

Metodologiari buruzkoak (gehienez 25 puntu)

- Jardueran parte hartzen dute hegoaldeko herrialde pobretuetako edo gatazka-lekuetako proiektuetan sartutako pertsonak (gehienez 5 puntu).
- Zehaztasun osoz definitzen dira proiektuaren helburuak, adierazleak eta espero diren emaitzak, bai eta egiaztapen-iturriak ere (gehienez 5 puntu).
- Udalerriko beste erakunde edo entitate batzuen bermea dauka jarduerak (gehienez 4 puntu).
- Genero ikuspegia kontuan hartzen da (gehienez 7 puntu).
- Proiektua bukatu ondoren ere, haren heziketa eta elkartasun ekintzaren jarraipena aurrekusi da (gehienez 4 puntu).

Aurrekontuari buruzkoak (gehienez 10 puntu)

- Aurrekontu banakatua, eta jarduera, bitarteko eta kostuen harreman egokia (gehienez 10 puntu).

6.- Instrukzioa

1. Hauek dira diru-laguntzaren emakida-prozedura tramitzeko eskumena duten organoak:

- a) Instrukzioa (instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako teknikaria.
- b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatze beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera instrukzio faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela diru-laguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean jarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7.- Ebazpena

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatetzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, diru-laguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: diru-laguntzaren xedea, diru-laguntza eskuratzeko duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iriztitako beste edozein errekurso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

4. Gehienez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen epe hori.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziosko egintzak ezeztatzailerak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenekin bat etorrita egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako diru-laguntzak.

8.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Dagokion deialdian finkatuko da proiektu bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion; dena den, zenbatekoak ezingo du gainditu deialdiko kreditu-kontsignazioaren % 40.

Hautatutako proiektuei emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren % 100ekoa izango da. Kasu berezietan, eskatutakoa baino kopuru txikiagoa ere eman dezake Udalak, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta justifikatutako arrazoiengatik, baldin eta horrek jardueraren bideragarritasuna kolokan jartzen ez badu.

Oinartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehentasun-ordena jartzea.

9.- Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea

Diru-laguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta gehienez urtebeteko iraupena izango du, diru-laguntza hartzen denetik kontatzen hasita.

Dagokion deialdian jarriko da justifikazioa aurkezteko epea.

3 ERANSKINA

EKINTZA HUMANITARIO ETA PUNTUALETARAKO PROIEKTUAK

1.- Helburua

Oinarri hauen helburua da beharra duten komunitateetan larrialdiko ekintza humanitarioak egiteko eman beharreko diru-laguntzak arautzea; gatazka belikoez edo katastrofe naturalek sortutako egoerak arintzeko izango dira laguntza humanitario edo larrialdietakoak, eta/edo oinarritzko beharrak edo beste edozein premia asetzeko (aurretik sumatu gabeko gertakari bat izateagatik oinarri hauen 1. eta 2. eranskinetan kontuan hartu gabekoak).

2.- Eskaerak

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari (egoitza soziala Eusko Jaurlaritzaren ELKARTEEN ERROLDA NAGUSIAN inskribatuta).

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari ofizialik ez izan. Kasu horietan, alde aurretik oniritzia eman beharko du informazio-batzordeak.

3.- Balorazioa eta laguntzen zenbatekoa

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 22.2c artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira laguntza hauek, dituzten ezaugarri bereziengatik, eta aurrekontuetan jarritako kreditua bukatu arte emango dira.

4 ERANSKINA

GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

1.- Helburua

Eranskin honen helburua da gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten erakunde sozialei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien diru-laguntzak arautzea.

Elkarteen funtzionamendurako eta elkartearen jardueraren xede diren kolektiboei zuzendutako programa eta/edo zerbitzuak garatzeko emango dira diru-laguntzak. Eman ahalko dira, baita ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuek euren jardunean antzemandako premia zehatzak konpontzeko jarduera-eremuetara zuzendutako programa edo zerbitzuak proposatzen dituzten jarduerak edo proiektuak egiteko, eta kolektibo jakin batzuen parte-hartzea eta ongizatea sustatzen dituzten jarduerak egiteko.

2.- Eskakerak

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkartek eskatu ahal izango ditu diru-laguntza hauek; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian garatuko dira.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta ez diren Zarautzen garatzen.

ZARAUZKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEan eskatutako dokumentazioaz gain, beste hau erantsiko zaio eskaerari:

- Elkartearen erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen estatutuak, aurrez Udalari entregatu ez bazaizkio, betiere data eta zein organo edo ordezkari ziren jasota, eta dagokien prozeduraren amaieratik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

3.- Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

4.- Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Hartzaileak (gehienez 10 puntu):

- Elkarteko kideak: gehienez 5 puntu.
- Herritarrak orokorrean: gehienez 5 puntu.

Elkartea (gehienez 35 puntu):

- Udal Gizarte Zerbitzuekin izandako lankidetzak (gehienez 10 puntu).
- Elkarteak bere egoitza nagusia edo legez eraturako ordezkari Zarautzen edukitzea (gehienez 5 puntu).
- Erakunde eskatzaileak Zarautzen duen esperientzia (gehienez 5 puntu).
- Zarauzko bazkide/kide kopurua (gehienez 5 puntu).
- Elkartearen zuzendaritza-batzordean emakume eta gizonen parte-hartzea parekidea izatea (gehienez 2,5 puntu).
- Elkarteko partaideen artean emakumeen eta gizonen parekidetasuna (gehienez 2,5 puntu).
- Zarauzko boluntario kopurua (gehienez 5 puntu).

Jardueraren eragina (gehienez 55 puntu)

- Zarauzko parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua (gehienez 10 puntu).
- Programa edo zerbitzua Zarautzen egitea (gehienez 10 puntu).
- Proiektuaren kalitatea (gehienez 20 puntu).
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako berezko esku-hartzeen esparruko funtzioak osatzea (gehienez 10 puntu).
- Genero ikuspegia txertatzea (gehienez 5 puntu).

5.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Dagokion deialdian finkatuko da proiektu bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Baldin aurrekontu-kontsignazio eskuragarriarekin, eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako diru-laguntza guztien artean.

6.- Instrukzioa

1. Hauek dira diru-laguntzaren emakida-prozedura tramitzatzeko eskumena duten organoak:

- a) Instrukzioa (instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako teknikaria.
- b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatzeko beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera instrukzio faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela diru-laguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean jarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7.- Ebazpena

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatetzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, diru-laguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: diru-laguntzaren xedea, diru-laguntza eskuratuko duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurtso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

4. Gehenez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontaktzen epe hori.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziozko egintzak ezeztatzaileak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenekin bat etorrita egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako diru-laguntzak.

8.- Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea

Diru-laguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta justifikazioa aurkezteko epea dagokion deialdian jarritakoa izango da.

5. ERANSKINA

GAZTE KOOPERANTEETZAKO DIRU-LAGUNTZAK

1.- Xedea

Eranskin honen helburua da gazte kooperantei norgehiagoka prozeduraren bidez emango zaizkien diru-laguntzak arautzea. Zarauzko herritarrak herrialde behartsuen garapenean laguntzeko lankidetzak-ekintzetan sentsibilizatzeko eta herrian elkartasun kultura sustatzeko tresna bat da hau. Beraz, hautatutako pertsonen zuzenean parte hartuko dute herrialde horietako garapenerako kooperazio-ekintzetan, GGKE baten bidez.

Gastu hauek ordaindu ahalko dira: helburu herrialdean Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkartu arteko punturaino joan eta etorriko bidaia; hala badagokio, helburu herrialdean sartu eta/edo irteteko bisak eta tasak; istripu eta gaixotasun joizak; eta helburu herrialdera joateko behar diren txertoak eta botikak.

2.- Baldintzak

Eskaera egin aurretik, adinez nagusia izatea eta gehienez 30 urte edukitzea.

Eskaeraren aurkezpen-data baino gutxienez urtebete lehenagotik Zarautzen erroldatuta egotea, eta GGKE batekin lan-harremanik ez izatea.

Zarautzen erroldatuta egon gabe ere programa honetan parte hartu ahal izango dute Zarauzko Udalak finantziatutako lankidetzak-proiektu batean parte hartu behar dutenek.

GGKE batek sinatutako lankidetzak-konpromiso bat, gutun bat edo berme bat edukitzea.

Garapenerako lankidetzan eta boluntariorik prestakuntza dutela egiaztatzea, edo, halakorik ezean, erakunde batek eman beharreko ikastaro bateko aurreinskripzioa aurkeztea.

3.- Diru-laguntza emateko prozedura

Norgehiagoka araubidean esleituko dira diru-laguntzak.

Norgehiagoka prozedura bidez ematen diren diru-laguntzetan, lehenik, aurkeztutako eskaerak konparatzen dira; ondoren, lehenagotik ordena jartzen da, hurrengo puntuak jasotako balorazio-irizpideen arabera; eta, azkenik, irizpideak aplikatuta balorazio handiena lortu dutenei diru-laguntza esleitzen zaie, kreditu eskuragarriaren barruan eta deialdian jarritako mugarekin. Beraz, jardueren puntuazio-hurrenkeraren arabera jasoko dute diru-laguntza, aurrekontuaren mugak eta baliabideak kontuan hartuta.

4.- Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Eskaerak baloratzeko orduan hurrengo puntuak hartuko dira kontuan:

- Jarduera egin behar den herrialdeko hizkuntza jakitea (gehienez 10 puntu).
- Eskatzaileak herrialde horretan garapenerako lankidetzak-proiektuan lanean egingo duen egonaldia iraupena (gehienez 10 puntu).
- Kasu bakoitzean egokienak diren titulazio akademikoa eta/edo profesionala izatea, edo espezialitate horietan ikasten ari direla ziurtatzea (gehienez 20 puntu).
- Egonaldian garatuko duen lanaren plana (gehienez 30 puntu).
- Genero ikuspegia txertatzea (gehienez 10 puntu).
- Gobernu Kanpoko Erakundeetan izandako esperientzia (gehienez 10 puntu).
- Gazte elkarteetan edo helburu sozialeko beste batzuetan parte hartu izana (gehienez 10 puntu).

5.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Dagokion deialdian finkatuko da proiektu bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion; dena den, zenbatekoak ezingo du gainditu aurrekontu osoaren % 80.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehentasun-ordena jartzea.

6.- Instrukzioa

1. Hauek dira diru-laguntzaren emakida-prozedura tramitatzeke eskumena duten organoak:

- a) Instrukzioa (instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribatutako teknikaria.
- b) Kide anitzeko organoa: dagokion batzordeko kideek osatutakoa.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehazteko, eskuratzeko eta egiaztatzeke beharrezko iruditzen zaizkion ekintza guztiak, gero, horien arabera, ebazpen-proposamena egiteko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera instrukzio faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak betetzen dituela diru-laguntzaren onuradun izateko jarritako baldintzak, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean jarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena egingo du, eta hor zehaztuko da zein den egindako ebaluazioaren emaitza.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, behin betiko ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei, entzunaldiaren tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

7.- Ebazpena

1. Ebazpena egitea Zarauzko Udaleko Alkatzari dagokio, edo, delegazioz, Tokiko Gobernu Batzarrari.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikoetan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira hartuko den ebazpenaren oinarriak, diru-laguntzak arautzen dituzten irizpide objektiboen arabera.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak espresuki adierazi beharko ditu honako hauek: diru-laguntzaren xedea, diru-laguntza eskuratu duen eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak eta diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifiko arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka zer errekurso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurso erabiltzeko eskubideari utzi gabe.

4. Gehienez sei hilabetean eman eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen epe hori.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozedurari dagokionez, gerta daitezkeen presuntziozko egintzak ezeztatzaileak izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenekin bat etorrita egingo da. Horrez gain, Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira emandako diru-laguntzak.

8.- Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea

Diru-laguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta justifikazioa aurkezteko epea dagokion deialdian jarritakoa izango da.

6.- 10.2 –OR SALBERDIN– AREAREN HIRI ANTOLAKETAKO PLAN BEREZIA. IBILGAILUAK SOTOETARA SARTZEKO BALDINTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA OSAGARRIA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

2017H7000009 espedientea

2017ko abenduaren 18an egindako bileran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea 10.2 –OR SALBERDIN– arearen plan bereziaren ordenantza osagarriari. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak idatzitakoa da, ibilgailuak sotoetara sartzeko baldintzak arautzeko.

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zuten.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 20 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea 10.2 –OR SALBERDIN– arearen plan bereziaren ORDENANTZA OSAGARRIARI. Udalak sustatu du, ibilgailuak sotoetara sartzeko baldintzak arautzeko.

Onartu den dokumentua 2017ko abenduaren 13koa da, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak idatzitakoa.

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintza-plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta ordenantza. Halaber, lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da behin betiko onespeneren akordioa.

10-2 –OR SALBERDIN- AREAREN PLAN BEREZIAREN ORDENANTZA OSAGARRIA IBILGAILUAK SOTOETARA SARTZEKO BALDINTZAK ARAUTZEKO

1.- AURREKARIAK. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA.

10-2 –OR Salberdin- area Antolatzeko Plan Berezia tramitatzeraoan, hasierako onespeneren ondoren, honakoa planteatu zen sotoko solairuen inguruan (Mikel Soraluze Elorza jaunaren alegazioa, Promociones Salbide SL enpresaren izenean):

“...El Plan Especial, establece que todos los suelos no ocupados sobre rasante de las futuras edificaciones tendrán la calificación de suelos de dominio y uso público para su destino al uso de espacios libres o comunicaciones posibilitando por otra parte que parte de dichos espacios libres se sitúen en superficie de un subsuelo ocupado por garajes de parcelas sean de titularidad privada, compaginando de esta forma el régimen jurídico de espacios libres en superficie de dominio público con el régimen de propiedad privada del subsuelo.

En la Ordenanza 18.06 "Condiciones específicas de los Sótanos", se establece que los mismos deberán disponer de accesos a través de la planta baja o de suelo libre privado, pudiendo autorizarse justificadamente la ocupación para ese fin de suelo libre público. Del examen de los planos de ordenación se deduce que todas las entradas a sótano se realizan a través de suelo libre público, razón por la que o calificamos los espacios destinados a rampas como parcelas de titularidad privadas o proclamamos desde ya, la autorización prevista en la ordenanza. No obstante, dadas las dificultades que pueden implicar la utilización o cesión de suelo público, entendemos más oportuno calificar dichos espacios (rampas) de titularidad privada..."

Plana idatzi zutenek eta udal teknikariek alegazioa aztertu eta zegokion txostena egin zuten.

Azkenik, Udaltzarrak 2011ko apirilaren 27an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen plan berezia. Ibilgailuak sotoetako garajeetara sartzeko arrapalak ordenantzaren 18.06 artikulua lehen atalean daude araututa (Sotoen berariazko baldintzak), eta honela dio:

"...Behe-solairuetatik edo lurzoru libre pribatutik sarbideak edukiko dituzte. Garajearen arrapalak eraikuntzaren behe-solairuaren ingurutzailan integratuko dira, lubakirik» ez sortzearen sestra gaineko lurzoru ez-eraiak betetzea saihestuz. Arrapalak antolatzean erabilera publikoko karrerapetik kanpo geratzea saihestuko da. Edozein modutan, karrerapeekin paraleloak diren arrapalak espazio itxiak izango dira, ibilgailuen zaratak oinezkoengan eragiten duen inpaktua minimizatzen. ..."

2.- PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA.

Hitzarmen Batzarraren proposamena da ibilgailuak sotoetan sartzeko jabari eta erabilera publikoko lurzoruan arrapalak jartzeko aukera ematea.

Aurretik adierazi den moduan, hasiera batean Ordenantzak aurreikusitako sarbide-arrapalak lurzoru publiko librea eraikitzeak aukera, betiere baimena behar bezala justifikatuta, baina Ordenantza aldatu eta ez zen horretarako aukerarik utzi.

Plan berezia onartu zenetik 6 urte baino gehiago igaro dira. Krisiaren ondorioz hainbat urtetan geldirik egon ondoren, urbanizatze jarduketara programa eta jarduketara sistema (publikotik pribatura -hitzarmena-) aldatzea erabaki zen.

Hitzarmen Batzarrak idatzita dauzka arearen birpartzelazio eta urbanizazio proiektuak, eta hasierako onespenetik gertu daude. Proiektu horiek eta partzeletako batzuen eraikuntza-aurreproiektuak idatzi ahala, ikusi da zaila dela, plan bereziak proposatu bezala, arrapalak *beheko solairuetan edo lurzoru libre pribatuan* bakarrik jartzea.

Ukaezina da aurreikuspen horrek eragin ekonomikoa daukala emaitzazko partzeletan, behe-solairu eta sotoetan azalera eraikia galtzen delako. Baina hori bigarren mailako kontu bat da, beste egoera batzuk hartzen baditugu kontuan.

Gaur egun genero-ikuspegiak protagonismo handia hartu du hirigintza-antolamendua diseinatzerakoan. Dagoeneko hirigintza modernoan aintzat hartzen diren gaietan sakontzen du genero-ikuspegi horrek: segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, osasunaren babesa...

Salberdinen kasuan, segurtasunaren eta mugikortasunaren ikuspuntutik, ibilgailuak sotoetan sartzeko arrapalak jabari eta erabilera publikoko lurzoruan jartzeak lagundu egingo du, gure ustez, arrapala horiek hobe integratzen.

Proposamenaren justifikazioa segurtasun eta mugikortasun irizpideetan oinarritzen da batez ere.

Plan bereziaren antolamenduan, emaitzazko partzeletako sotoetako solairuak komunikatuta daude euren artean, eta sarrera eta irteerako arrapala komunak dituzte, ibilgailuen sarrera eta irteeren eragina ahalik eta gehien gutxitzeko. Nolanahi ere, arrapala gutxiago egotearen ondorioz, sarbideetako arrapaleetatik egunero ibilgailu-kopuru handia sartu eta irteten da. Kontuan izanda proiektatutako sotoetako solairuek 1.470 ibilgailutarako edukiera izango dutela, egoerarik muturrean jarrita, hau da, ibilgailu guztien sarrera-irteera gertatuz gero, arrapalek 2.940 ibilgailuren joan-etorria jasan beharko lukete egunero.

Indarrean dagoen Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, arrapalak eraikuntzaren behe-solairuaren ingurutzailan integratu behar dira. Proiektatutako eraikinek kanpoaldean portxeak dituztenez, ibilgailuen sarrera-irteera portxe horiek zeharkatuta egin beharko litzatekeela aurreikusten da. Egoera horri gehitzen badiogu, batetik, arrapaletatik gora ibilgailuak kanpora irteteko azelerazioa behar dutela eta, bestetik, portxeen altueran inklinazio bat edukiko luketela eta horrek ez duela uzten bertatik pasatzen dabilen oinezkoa ondo ikusten, oso handia da oinezkoa kotxearekin harrapatzeak arriskua.

Arrisku horiek ekiditeko modu bakarra da arrapala horiek tokiz aldatu eta jabari eta erabilera publikoko espazio libreetarako lurzorura eramatea. Hor ikuspena handiagoa da, bai oinezkoentzat eta baita gidarientzat ere.

Salberdineko urbanizazio-proiekturako idatzi zen genero-ikuspegiaren txosten-diagnostikoa aipatuko dugu. Bertan, garaje eta portxeetako sarbideei buruzko iradokizunak aurkituko ditugu; portxeak, esate baterako, osasunerako baliagarriak izan omen daitezke aukera eskaintzen baitie menpekotasuna duten pertsoneri ariketa fisikoa egiteko.

Testuinguru horretan, Udalari aurkeztutako proposamena ondorengo irizpideetan oinarrituta dago:

a.- Oinezkoen segurtasuna eta mugikortasuna kontuan izanda, garajeetara sartzeko arrapalenzat kokapen egokia aurkitzea.

b.- Arrapalekin espazio publikoak galtzen direnez, galera hori konpentsatzeko, portxeetan oinezkoentzako espazioak handitzea.

Proposamenen plano orientagarri bat ere badago, eta bertan, sarbideetako arrapalen eta portxe berrien gutxi gorabeherako kokapena agertzen da. Plano horren arabera, sotoetarako honako sarbideak proposatzen dira:

1. R1, R2 eta R3 partzeletako sotoetako sarbidea. R2 eta R3 partzelen artean dagoen bidean jartzea proposatzen da.
2. R4, R5 eta R6 partzeletako sotoetako sarbidea. R5 partzelaren aldean eraikitzeakoak diren portxeari paralelo kokatzea proposatzen da.
3. AD eta R7 partzeletako sotoetako sarbidea. Sarrera bat eta irteera bat izango dute, eraikinen ekialdean jarri beharrekoa, Zelai Ondo poligonoaren ondoan.
4. R10, R11, R12, R13 eta R15 partzeletako sotoetako sarbidea. Barruko parkera sartzeko zonan kokatzea proposatzen da, hain zuzen, R10 eta R12 partzelen artean.
5. R9 eta R14 partzeletako sotoetako sarbidea. R9 partzelaren ekialdean kokatzea proposatzen da, Zelai Ondo poligonoaren aldamenean.

Arrapala horiek jartzen direnean, plan berezian handitu egin beharko da portxeetarako aurreikusita zegoen azalera ere, eta hala, ezin izango zaie eman arrapalek okupatzen duten azalera baino azalera txikiagoa. Proposameneko plano orientagarrian jasota daude portxei gehitu beharreko azalera. Planoaren arabera, arrapala guztiek 514,36 m² inguruko azalera okupatuko dute. Hori konpentsatzeko, portxeak 519,22 m²-tan handituko dira; azalera horiek horrela daude banatuta :

R1, R2 eta R3 partzelak

- Arrapalak okupatuko duen azalera: 84,02 m²
- Portxei gehituko zaien azalera: Ez

R4, R5 eta R6 partzelak

- Arrapalak okupatuko duen azalera: 84,41 m²
- Portxei gehituko zaien azalera: 169,78 m² (R4 partzela)

AD eta R7 partzelak

- Arrapalek (2) okupatuko duten azalera: 153,95 m²
- Portxei gehituko zaien azalera: 154,34 m², bi partzelen artean

R8, R10, R11, R12, R13 eta R15

- Arrapalak okupatuko duen azalera: 71,92 m²
- Portxei gehituko zaien azalera: 74,52 m² (R10, R11, R12 eta R13 partzeletan)

R9 eta R14 partzelak

- Arrapalak okupatuko duen azalera: 120,06 m²
- Portxei gehituko zaien azalera: 120,58 m², bi partzelen artean.

Azkenik, arrapalen kokapena eta diseinua Urbanizazio Proiektuan jasotzea proposatzen da.

3.- ORDENANTZAREN TESTUA.

1.- 10-2 areako -OR Salberdin- hiri antolaketako plan bereziaren ordenantzaren arau osagarri gisa, ibilgailuak sotoko solairuetara sartzeko arrapalak jarri ahal izango dira, baita ere, hirigintzako higiezin-multzoaren eremuan, titulartasun gainjarria duten eta erabilera eta jabari publikoko espazio libreetara bideratuta dauden espazioetan, baldin eta hala justifikatzen bada area horretan oinezkoen segurtasun eta mugikortasun baldintzen hobekuntzarako.

2.- Aukera hori hautatuz gero, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a.- Ordenantzari erantsitako planoak adierazitako tokietan jarriko dira arrapalak. Plano horrek izaera orientatzailea dauka, proiektuak baimentzeko eta lizentziak emateko jarraibide modura erabiltzeko. Kokapen ezberdin bat proposatzen

badute, xehetasun-azterketa aurkeztu eta izapidetu beharko da, arrazoituz planteatu den irtenbideak segurtasun eta mugikortasun baldintzak hobetzen dituela.

b.- Lurzoru publikoak arrapalekin okupatzeak behartu egingo du behe-solairuetan oinezkoen erabilera publikora zuzendutako portxeak gehiagotzera. Portxeak gehiagotzeko proposamena ere plano orientatzailean dago jasota.

c.- Arrapalen kokapena eta arrapalen bazterretako itxituren ezaugarriak arearen urbanizazio-proiektuan jaso beharko dira. Honako arauak ezarri dira:

c-1.- Sestra gaineko eraikinen eta garajeetako arrapalen arteko oinezkoentzako pasabideak, gutxienez ere, 2 m-ko zabalera libre edukiko dute.

c.2.- Itxituren diseinuan ikuspenari emango zaio lehentasuna, ikusmen-oztopoak ekidinez.

d.- Soto-solairuetako jabeen kontura izango da arrapalak eraikitzea eta horien mantenimendua; zirkunstantzia hori birpartzelazio-proiektuan jaso beharko da.

4.- ORDENANTZAREN ERANSKINA

Plano orientagarria. Arrapalak jartzeko proposamena. 1/2.000 eskala.

7.- ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

2017T9880001 espedientea

Lehenik eta behin, idazkari andreak akordio-zirriborroa irakurri du eta, segidan, gaia eztabaidatzeari ekin diote.

Eztabaidaren baitan adierazitakoak kontuan hartuta, batzarburu jaunak aztergaia mahai gainean utzi du, hurrengo osoko bilkuran aztertzeko.

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da.

– UDAL TALDEEK PENTSIEN SISTEMAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

8.- PSE-EE udal taldeak: birbanatzeko eta desberdinatsunak murrizteko ahalmen handiagoa izango duen pentsio-sistema publiko bat ezartzeko mozioa.

2018O0010001 espedientea

9.- Irabazi Zarautz udal taldeak: pentsioen etorkizuna bermatu beharrari buruzko mozioa.

2018O0010002 espedientea

Aztergai honetara iritsita, udal talde aurkezle bakoitzak atzera egin eta aurkeztutako mozioa kendu du gai-zerrendatik. Ondoren, hasierako haien orde, elkarren artean adostutako beste mozio hau aurkeztu dute:

– PSE-EE eta IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA

PSE-EE eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek aurkeztutako mozio hau irakurri du idazkariak:

PSE-EE eta IRABAZI-ZARAUTZ udal taldeek aurkeztu duten mozioa, Pentsioen Sistema Publikoari buruz eta horien etorkizuna bermatzeari buruz, Udalbatzarrak eztabaida dezan.

Alderdi Popularraren Gobernuak zenbateko handiak atera ditu Erreserba Funtsetik, eta defizita konpentsatzeko erabili ditu (66.815 milioi euro zeuden 2011ren amaieran, eta 8.095 milioi eurotan geratu arte zukutu dute). Horrek arriskuan jartzen du Gizarte Segurantzaren egoera finantzarioa, eta, ondorioz, egungo pentsioen bermea ez ezik, baita, bereziki, etorkizuneko pentsioena ere. Horregatik, ezinbestekoa da sistemari egonkortasuna emango dioten neurriak hartzea.

Hori dela eta, PSE-EE eta Irabazi-Zarautz udal taldeek ondorengo neurriak har ditzala eskatzen diote Espainiako Gobernuari:

1. Pentsioen Erreforma indargabetu dezala (Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituen 23/2013 Legearen bidez onartutakoa), urtero KPI bezainbeste igoko den pentsio duin bat bermatzen jarraitzeko.
2. Pentsioen eros-ahalmena bermatzea, eta pentsioak berriz ere KPIren arabera eguneratzea.
3. Legez debeka dezala Pentsioen Erreserba Funtsa libreki erabiltzea, kotizazioetan defizita dagoenean.
4. 2012ko Lan Erreforma indargabetu dezala, enpleguaren kalitatean duen eragin kaltegarriek arrisku larrian jartzen dutelako pentsioen iraunkortasuna eta etorkizuna.
5. 23/2013 Legean jarritako jasangarritasun-faktorea kentzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera erretiro-pentsioak murriztuko baititu, talde horren bizi-itxaropenaren arabera.
6. Zarauzko Udalbatzarrak Estatuko Gobernuari eskatzen dio, Toledoko Itunaren baitan bideak bilatu eta jar ditzala Estatuko Aurrekontu Orokorretatik zuzenean finantzatzeko, kotizazioetan defizita dagoen bitartean.
7. **Neurri espezifikoak hartzea gizonen eta emakumeen pentsioen artean dagoen % 40 inguruko arrakala pixkanaka ezabatzeko (genero-defizita).**
8. Toledoko Itunean **printzipio berri hau txertatzea: "aurrekontu-oreka"**. Kontzeptu horren arabera, gastuak arrazionalizatu eta diru-sarrerak egokitu beharko dira urte bakoitzean; alegia, **pentsioen gastuari eutsiko zaie, beste gastu-partida batzuk arrazionalizatuko dira, eta sistemaren diru-sarrerak gehituko dira, pentsioak murriztu gabe, eta, hartara, pentsiodunak pobretu gabe.**

9. 7/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartzen duenak, 18.2 eta bosgarren xedapen iragankorren xedatutakoarekin bat etorriz, jarduerak egiten has daitezela Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketaren arloko eskumenak berehala Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeko.
10. Udalak babesten ditu pentsiodun eta erretiratuak Euskadin eta Estatu osoan egiten ari diren mobilizazioak.
11. Espainiako Gobernuari eta Diputatuen Kongresuko Talde Parlamentarioei akordio honen berri ematea, eta mozio hau ohiko bitartekoen bidez jendaurrean jartzea, Zarautzko pentsiodunen kolektiboa ere jakinaren gainean egon dadin.

Eztabaida amaitutakoan proposamena bozketan jarrita, emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	6	(6 EH Bildu)

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU PSE-EE eta IRABAZI ZARAUTZ udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea.

10.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA:

– Mozioa: greba feministaren alde.

2018O0010003 espedientea

Era berean, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

2018ko MARTXOAREN 8ko GREBA FEMINISTAREN ALDEKO MOZIOA

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko egunean, mugimendu feministak emakumeen greba orokorrerako deialdia egin du gure geografia osoan, erakunde eta talde politiko, sozial eta sindikalen babesarekin.

Deialdiaren helburua munduko biztanleriaren erdiak (emakumeak) pairatzen ditugun desberdinkeriak, diskriminazioak eta egiturazko indarkeria salatzea da, bai eta gizarte eredu justu, demokratiko eta parekideago bat aldarrikatzea ere.

Sistema kapitalistaren eta patriarkalaren aurkako greba feminista da. Izan ere, sistema horrek ahalbidetzen du emakumeok pairatzen ditugun egiturazko derberdinkeriak gero eta larriagoak eta handiagoak izatea. Horregatik, ezinbestekoa da kaleak, erakundeak eta lantokiak hartzea, gu gabe mundua gelditu eta eten egiten dela erakusteko.

Munduaren funtzionamendu, datu eta praktikek honako egoera hauek eragiten dituzte:

- Mundu osoan, emakumeok gizonen ordainsarien ehuneko 60 eta 75 arteko soldata jasotzen dugu bakarrik, balio bereko lanetan.
- Espainiako estatuan, emakumeek egiten dituzten etxeko lanak, zaintza lanak eta lan erreproduktiboak BPGren % 53 dira. Horrek esan nahi du Estatuak emakumeengan jartzen duela zerbitzu publikoen bitartez artatu beharko litzatekeen lan zati handi baten ardura.
- Haurdunaldia borondatez eteteko aukera ez zaie emakume guztiei bermatzen. Indarrean dagoen legeriak ahalbidetzen du mediku klase erreazionarioenek osasun zentro publikoetan HBE egiteari uko egin ahal izatea eta Zigor Kodean oraindik ere abortatzea delitu gisa jasotzea.
- Misoginia kulturaren eta zientziaren esparru guztietan dago zabaldua. Arte, literatura, zinema, matematika, biologia, ingeniari, arkitekturan.. emakumeak apenas existitzen diren. Ikusezin bihurtze horrek eragin du emakumeak Historiaren narrazioan ez agertzea eta egin dituzten eta egun egiten dituzten ekarpen guztiak kontuan ez hartzea.
- Sexu erasoak eta bortxaketak, kasu batzuetan, banakoen egintza kriminalak izatetik gero eta presentago dauden talde formetara igaro dira.
- Etengabe erailtzen dira emakumeak, eta gizarteak erabat gaitzetsi behar du errealitate onartezin hori, kultura antipatriarkal baten eraikuntza finkatzeko eta emakumeen bizitzatik indarkeria sistematikoki hori desagerrarazteko.
- Sabel/uteroen alokairuei buruzko eztabaida eta eskaria zabaltzen ari da, eta ezin ditugu emakume behartsuak ahaztu; izan ere, horiek dira beren burua esplotazio kapitalista eta patriarkal mota hori egitera behartuta sentitzen direnak.
- Hainbat eta hainbat emakume eta hurrekin trafikatu da gizonen kontsumo sexualerako, eta horrek lotura ukazina du "sexuaren industria" eta prostituzioarekin.

Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, Udal honek matxoaren 8rako deitutako greba feminista babesten du. Grebaren harira, manifestazio handiak egingo dira Espainia osoan; emakumeek kaleak hartuko dituzte erakusteko mundua eteteaz gain, erabat eraldatu behar dela, eredu patriarkalak baztertuz eta berdintasun, justizia, parekidetasun, askatasun, aniztasun eta demokraziarako erduekin ordezkatuz.

Hori horrela, Zarauzko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen Greba Orokorra babestea.

- Emakumeen elkarteek martxoaren 8rako antolatzen dituzten manifestazio, jarduera eta ekintza guztiak erraztea, baliabide material eta pertsonal eta komunikazio baliabide bide guztiak erabiliz.
- Udaletxean bandera feminista goratzea, emakumeen borrokaren aldeko sinbolo gisa.

Udal taldeek proposamenaren inguruko iritzia eman dute eta, EAJ-PNV udal taldeak adierazi du bat datorrela mozioaren puntuekin baina ez, ordea, mozioaren azalpen-zatiarekin. Ondoren, mozioa bozkatzeari ekin diote eta haxe izan da emaitza:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	6	(6 EH Bildu)

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, transkribatutako mozioa onartzea.

11.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatziak bost gutxitan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.